Bizkaia beaz

ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN ORRIA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ HURRENGO KONTRATUA ESLEITZEKO:

"BEAZek BIC Bizkaian kudeatzen duen fabrikazio eta manufaktura aurreratuko lantegiaren dinamizazio eta euskarri-zerbitzurako urgazpen teknikoa".

EXPTE ZK.: 9/2022

AURKIBIDEA

1.- AURREKARIAK 3

2.- KONTRATUAREN HELBURUA 3

3.- ZERBITZUAREN NORAINOKOA 4

4.- BALIOZTATZEKO IRIZPIDEAK 5

5.- AZKEN XEDAPENAK 5

1. ERANSKINA. LANTEGIKO EKIPAMENDUA 7

1. AURREKARIAK

Gaur egungo abagunean enpresak Euskadiko ekonomiaren motor nagusia dira eta, horrenbestez, haien lehiakortasunaren alde egitea funtsezkoa da haien garapenerako. Bizkaiari dagokionez, Europan bezalaxe, ETEen pisu handiak eta haien lehiakortasunak berebiziko betekizuna dute Lurraldeko ekonomiaren lehiakortasunean.

Testuinguru honetan, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak batera ekin zioten BIC BIZKAIA, diseinatu eta abian jartzeari. Proiektu handinahitsu honek enpresak sortzeko eta berrikuntza prozesuak bultzatu eta bizkortu nahi ditu Bizkaian, lurraldean jarduera ekonomikoa eta lanpostuak sortzeko xedeaz

BIC Bizkaiak bertoko eta nazioarteko erreferentzia-zentroa izan nahi du berrikuntza eta hazkunde ekimenak garatzeko, bio, mikro eta teknologiaren arloan, eta baita ere manufaktura aurreratu eta teknologia garbietan, erreferentzia startupak sortzeko, berrikuntza-proiektuetarako eta bertan ezarrita dauden enpresen hazkundea lortzeko.

Egoera honetan, Bizkaiko Zientzia eta teknologia parkearekin batera BIC BIZKAIA kudeatzen duen BEAZ, S.A.U.k ezarritako helburua lortzeko, azken garaian zenbait lan-ildo garatu dira eta horien artean azpimarratzekoak dira:

- Fabrikazio Eranskorreko Lantegi bat abian jartzea.
- Inkubagailuaren instalazioetan Fabrikazio eta manufaktura Aurreratuko lantegia bat abian jartzea.

Ekintzon helburu nagusia bertan kokatuta dauden enpresei saiotegi bat eskaintzea da, pieza eta produktuen prototipoak esperimentatu eta fabrikatu ahal ditzaten..

2. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratu honen helburua BIC BIZKAIAn kokatuta dagoen Fabrikazio eta Manufaktura Aurreratuko Lantegia kudeatu, dinamizatu eta kontrolatzeko zerbitzua kontratatzea da, egokiro funtziona dezan eta BIC Bizkaian kokatuta dauden enpresa guztiei emandako zerbitzu, euskarri eta aholkularitzaren kalitatea bermatzeko, arlo horretako beharrizanei dagokienez.

3. ZERBITZUAREN NORAINOKOA

Proiektuaren helburu nagusia Fabrikazio eta Manufaktura Aurreratuko Lantegiaren erabileran enpresei laguntza osoa ematea denez, beharrezkotzat jotzen da eskainiko den zerbitzuaren zereginak zehaztea eta, hasteko, instalazioetan pertsona batek presentzia fisikoa izan beharko du, goi eta arratsaldeko ordutegian, hurrengo ekite-ildoak garatzeko:

- Enpresentzako zerbitzuak:
  - Laguntza fabrikazio-prozesuei buruzko galdera eta aholkularitzari dagokionez.
  - Laguntza eta aholkularitza enpresei Lantegian dagoen makineria erabilerari dagokionez.
  - Aholkularitza dauden tresnei dagokienez eta kontrola haien funtzionamendu egokiari buruz.
  - Lantegian dauden tresna edota teknologiei eta lotuta dauden diziplina eta sektoreko joera berriei dagokien prestakuntza antolatzea eta ematea.

- Enpresak bereganatzeko eta gunea komunikatzeko eta hedatzeko lanak:
  - Balizko enpresak bereganatzea BIC Bizkaiaren barruan eta Manufaktura Aurreratuko Lantegiaren erabilera sustatzea (enpresei ikustaldiak eginez, erakusketen bidez, etab.
  - Lankidetzaren bidez elkarrekin lan egiteko bideak aztertzea, jardunaldiak etab. antolatuz, barruko langileekin, zentroko enpresekin eta Fabrikazio Eranskorreko Lantegiaz (3D gela9 arduratzen den lantaldearekin.

- Manufaktura Aurreratuko Lantegia mantentzea eta antolatzea:
  - Lantegia ordenatuta mantentzea.
  - Tresneriaren kontrola, aldizkako mantentze-beharrizanen ebaluaketa eta beharrizanen berri ematea BEAZ S.A.U.ko arduradunei.
  - Lantegiko tresneriaren oinarrizko mantentzea (tresnak purgatzea, kontsumigarriak ordeztea, tresnak koipeztatzea, kontsumigarrien maila egokiaren kontrola, azaleko garbiketa, etab.)
  - Tresnen erabilera egokiaren kontrola, haien erabilera-araudia eta Lantegikoa kontuan hartuz.
  - Baliabide berrien beharrizanen ebaluaketa eta proposamena.
  - Makineriaren erabileraren planifikazioa dauden eskari-beharrizanen arabera.
  - Enpresa-eskarien kudeaketa ordenatu eta dokumentatua.

- Hileroko txostenak egitea lantegiaren erabilerari buruz (erabilitako tresnak, okupazio-maila, ohartutako gorabeherak, etab.
- Aldian behingo txostenak egitea lantegiaren funtzionamendua hobetzeko proposamen eta guzti.

Pertsonak, halaber, frogatu edota egiaztatu beharko du Lantegian dauden tresnak —plegu honen eranskinean adierazten direnak— erabiltzeko gaitasuna duela eta ezaguerak dituela hurrengo gaietan:

- Zenbakidun kontrola eta Mekanizatze-Zentroen programaketa eta eragiketa.
- Trigonometria.
- Makina-erremintak.
- Ebakitze-tresnak.

Halaber, Beaz S.A.U.ri jakinarazi beharko zaizkio ohiko jardueretatik kanpo Fabrikazio eta Manufaktura Aurreratuko Lantegian egingo diren edozein motatako jarduerak, ekintzak edota jardunaldiak, haien zabalkundea bultzatu eta, egokitzat joz gero, beste alderdi batzuek parte hartu ahal dezaten.

Zerbitzua zuzenean emango du kontratatutako enpresak eta noizean behin Manufaktura Aurreratuko Lantegiaren egoera, erabilera-maila eta bilakaerari buruzko informazioa eskaini beharko die BEAZ S.A.U.-ko langileei.

Halaber, lehiaketara aurkez daitezen enpresek beren eskaintzetan frogatu beharko dute eskatutako zerbitzu-mota hornitzeko eta zerbitzuaren kalitatea ziurtatzeko eta sor litezkeen beharrizan edota arazo teknikoei berehala erantzuna emateko nahiko gaitasunik badutela, AKPPguko xxx atalean agertzen den bezala.

4. BALIOZTATZEKO IRIZPIDEAK

BEAZEK aintzat hartuko ditu hurrengo irizpideak, esleipen honen administrazio klausulen pleguko 2.7.2. atalean agertzen den bezala:

2.1. Automatikoki kuantifika daitekeen irizpidea:

Proposamen ekonomikoa: gehienez 100 puntu arte.

2.2. Automatikoki EZIN kuantifika daitekeen irizpidea:

Programa teknikoa: gehienez 100 puntu arte.

Hurrengo alderdi teknikoak balioztatuko dira:

1. METODOLOGIA (20 puntu)

B gutun-azalean eskatutako dokumentazioan oinarrituta gehienez 20 puntu arte balioztatuko da aurkeztutako metodologiaren egokitzapena eta proposamenaren koherentzia orokorra. BIC Bizkaian kudeatu behar den azpiegitura eta inkubatutako enpresei laguntza teknikoa emateko lankidetza-lana ondo ulertzeak proiektuari emango zaion ikuspegia baldintzatuko du eta, horrenbestez, garatuko diren jarduerak, horren norainokoa eta identifikatutako helburuak horren araberakoak izango dira.

2. LANAREN PLANIFIKAZIOA (20 puntu)

Gehienez 20 puntu arte balioztatuko da edukiaren planifikazioa eta lehiatzaileak proposatutako lan-programaren xehetasun maila. Ezarritako helburuak lortzeko oso garrantzitsutzat jotzen da lan-plan zehatz eta koherentea izatea, garatuko diren zeregin eta jarduera bakoitzaren azalpen argia eginez, zehazki zerrendatuz zeregin bakoitzean egingo diren emanaldiak, mugarri nagusiak, zeregin bakoitzean parte hartzen duten arduradun eta kideak haien ezaguera, esperientzia eta egingo duten ekarpenaren arabera. Halaber, helburuak lortzeko ezarritako adierazleak ere aipatuko dira.

3. PROIEKTUKO LANTALDEA (40 puntu)

Gehienez 40 punturekin balioztatuko da proiektu honetan izendatutako lantaldearen kualifikazioa. Kontuan hartuko dira lantaldearen esperientzia eta ezaguera orokorrak eta lantaldeko kide bakoitzak antzeko proiektuetan izandako esperientzia berezia eta aurkeztutako lantaldearen koherentzia. Berebiziko garrantzia emango zaio lantaldeko kideek metal-mekanikoen fabrikazio espazioen proiektuetan izandako esperientziari eta manufaktura eta fabrikazio aurreratuaren arloarekin zerikusia duten teknologia berriei buruzko berariazko ezagutzari.

Era berean, positiboki baloratuko da fabrikazio eta manufaktura aurreratuko arloetan ekintzailetza dinamizatzeko programetan parte hartzea eta aldez aurretik esperientzia izatea.

4. ARDURALDI-MAILA (10 puntu)

Gehienez ere 10 punturekin balioztatuko dira profil bakoitzean proiektuari esleitutako arduraldi-orduak eta BIC Bizkaian dauden enpresei egunero arreta emateko proposatutako jardunaldia

5. SEGIMENDUA (10 puntu)

Gehienez ere hamar 10 punturekin balioztatuko dira proiektuaren jarraipena egiteko erabiltzen diren metodologia eta tresnak, bai ikuspuntu teknikotik bai ekonomikotik, adierazitako helburuak adierazitako epe eta kostuetan lortzen direla bermatzeko, baita arriskuen kudeaketa egokia bermatzeko eta lantegia bera dinamizatzea sustatuko duten ekimen berriak proposatzeko ere.

Beren ebaluazio teknikoan adierazitako gutxieneko 50 puntuko puntuazioa gainditu ez duten proposamenak zuzenean ebaluazio ekonomikotik kanpo geratuko dira, proposamen ekonomiko hori kontratazioaren xedea behar bezala ezagutu gabe egin dela esan nahiko baitu eta, ondorioz, modu artifizialean alda dezake beste proposamenei emandako puntuazio ekonomikoa.

5. AZKEN XEDAPENA

Indarrean dagoen hizkuntza erregimenaren ondorioz dauden betebeharrak aintzat hartuta, esleipendun enpresek beren lanak bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu behar dituzte, espresuki besterik ezartzen ez bada. Bizkaiko Foru Aldundiak ez du inondik ere bere gain hartuko aholkularitza eta urgazpen kontratu baten ondorioz sortutako dokumentuen itzulpena.

Aukeraz, enpresa edo erakunde lizitatzaileak edozein proba-bideren bitartez egiaztatu ahalko du hizkuntzari dagokionez gaitasun eta jakite-baldintzak betetzen dituela, eta hori esleipendun enpresa edo erakundeak kontratua betearazteko fasean egiaztatu beharko du.

Plegu honetako artikulu guztiak kontratuan zehaztutakoaren menpean daude eta zalantza edo kontraesanik egonez gero kontratuan ezarritakoa gailenduko da.

Bilbon, 2022ko azaroaren 23an

Olatz Goitia
Zuzendari nagusia

1. ERANSKINA. FABRIKAZIO ETA MANUFAKTURA AURRERATUKO LANTEGIAREN EKIPAMENDUA

DOITASUNEZKO EKIPAMENDUA

Tresneria	Azalpena	Marka
Weiss tornua	Tornua WM250V – F abiadura-aldaketarekin	Weiss
Konpresorea	Torlojudun konpresorea CHAMPION 6.250,00 - KA7/EDT/500	Champion – Gardner Denver
Lupa estereoskopikoa	Estereomikroskopiko trinokularra	Leica Microsystems
Zintadun zerra	Zintadun zerra Starrett S1105	Starrett
Zutabeko daratulua	Zutabeko daratulua AY CG 16 550W – 5 abiadura	Ayerbe
Granallatzeko makina – Mahukadun kabina	Txorro-kabina - SBF+	Jomar
Labe elektrikoa	Tenperatura handiko Labe elektrikoa 1300ºC	SNOL
Lehortzeko berogailua	Lehortzeko berogailua Binder ED 56	Binder
Esmerilagailua	Esmerilagailua AY 200	Ayerbe
Doitasun-balantza	Doitasun-balantza – Ohaus Pioneer 1mg	Ohaus Pioneer
Gasak erauzteko kabina	Gasak erauzteko kabina – OR ST 1200	Burdinola

ZENBAIT TRESNA

Tresneria
Giltza-sorta tutua 6-7 A 30 - 32
Giltza-sorta, finkoak 6-7 A 30 - 32
Giltza-sorta, izar laua 6-7 A 24 -26
Giltza-sorta, izar konkortua 6-7 A 24 - 26
Buxia giltza 16 mm
Bihurkin-sorta, laua
Bihurkin-sorta, izarra
Kalibre herdoilezina Erref 28.20.0.11
Errodamendu-erauzkailua IRIMO Erref. 701.011
Gurutze-giltza Turismoa 17 x 19 x 22 x 1/2"
Errematxatzeko makina FAR K-39
Flexometroa TAJIMA HI - LOOCK 3 m x 16 mm
Buxiak garbitzeko latoizko eskuila
Aliketa terminalak isolatu gabe
Giltza doigarria IRIMO 1/2"
Giltza doigarria IRIMO 5/8"
Xafla mozteko artazi zuzenak, Palmera Erref. 911.025
Aliketa unibertsala BAHCO Ref. 2630 D -180
Diagonaleko ebaketarako aliketak Palmera Erref. 64570
Aliketa aho borobila Palmera Erref. 24.260
Aliketa kanpoko eraztunak BAHCO Erref 2900 - 180
Aliketa barruko eraztunak BAHCO Erref 2800 - 180
Aliketa aho erdiborobila BAHCO Erref 2430 G - 200
Aliketa aho erdiborobil kurboa BAHCO Erref 2427 D - 200
Aliketa aho erdiborobil laua BAHCO Ref 2471 G - 160
Elektrizista artaziak Palmera Erref. 845.120 - 5"
Iragazki-erauzgailua FORZA Erref 5002
Kurrikatxo artikulatuak BAHCO Erref. 6224 GC
Ebanista mailua BELLOTA Eref. 8005 - E
Mailua BOCAS NYLON IRIMO Erref. 529.171 - 35 mm
Aliketa-kurrikak Grip BAHCO Erref. 2953 - 250mm
Aliketa-kurrikak Grip BAHCO Erref. 2953 - 300mm
Giltza-sorta ALLEN (12 pieza)
Granetea HABERO Erref 100 - 12
Egozkailu zilindrikoa Gedore Erref 119 - 5 mm
Egozkailu konikoa BAHCO Ref. 3733 - 4mm
Berana BAHCO Eref 3645 - 150 C

Hotzeko zizela BELLOTA Erref. 8251 - 175 mm
Hotzeko zizela BELLOTA Erref. 8251 - 200 mm
Torlojua IRIMO 125 mm
Galga-sorta, lodierak 100 mm 0,05 - 1 mm
Galga-sorta haril metrikoa
Zinta isolatzaile beltz erroilua
lima borobila BELLOTA BASTA 8" euskarriduna
Lima kaina erdikoa BELLOTA BASTA 8" euskarriduna
Lima laua BELLOTA BASTA 8" euskarriduna
Eskuzko zerra-arkua 12"
Ar eta kojineta sorta M - 3 A M - 12
Barauts zilindriko sorta HSS Diam. 1 - 13 mm
Giltza-sorta konexioa Conexión 1/2" IRIMO Eref. 129.091
Zerra-makina zinta STARRETT S1105
Zutabeko daratulua Ayerbe AY - 16 - CG
Esmerilatzeko makina AYERBE AY 200 zorroztarri eta arrabotarekin
Daratulu-bihurkina bateriarekin, Makita DDF453RFE 18 V.
Bandako lixagailua MAKITA
Multitresna kita DREMEL
Esmeril-ehun plegua 0 - 1 - 2

Tresneria
Hotzeko zizela BELLOTA Ref. 8251 - 175 mm
Hotzeko zizela Erref. 8251 - 200 mm
Torloju zuria IRIMO 125 mm
Galga-sorta, lodierak 100 mm 0,05 - 1 mm
Galga-sorta, hari metrikoa
Zinta isolatzaileko erroilua, beltza
Lima borobila BELLOTA BASTA 8" Euskarriduna
Lima erdibiribila BELLOTA BASTA 8 Euskarriduna
Lima laua BELLOTA BASTA 8" Euskarriduna
Eskuzko zerra-arkua 12"
Ardatz eta kojinete sorta M - 3 A M - 12
Barauts zilindriko sorta HSS Diam. 1 - 13 mm
Kazola-giltza sorta Conexión 1/2" IRIMO Erref. 129.091
Zerra-makina, zinta STARRETT S1105
Zutabeko daratulua Ayerbe AY - 16 - CG
Esmeriladora AYERBE AY 200 harri eta eskuilarekin
Bihurkin-zulagailua, Bateria, Makita DDF453RFE 18 V.
Banda-lixagailua MAKITA
Tresna askotariko kita DREMEL
Esmerileko ehun-plegua 0 - 1 – 2 zkiak